

` ` Works from the 70s and 80s ´ ´

Richard Serra

2020ko irailak 25 - abenduak 7

CarrerasMugica

CarrerasMugicak atseginez aurkezten du Richard Serra. Works from the 70s and 80s, artista estatubatuarri eskainitako hiru-garren erakusketa, *Echoic Drawings* (2012) eta *Tracks* (2009) ondoren.

Erakusketa honetan bederatzi lan ikus daitezke, eskultura bat eta paper gainean egindako formatu handiko zortzi obra. Eskultura, *Three unequal elevations* (1975), altzairu forjatuzko hiru blokez osatuta dago, eta 65 x 31 cm. neurtzen du bakoitzak, baina altuera sotilki ezberdinak dituzte; 25, 27 eta 29 cm-koak. Triangelu aldeakide bat osatuz jarrita daude, euren artean 6 metroko tartearekin. Arte minimalistaren adibide nabarmen bat da, ikuslearen paper aktiboa proposatzen da bertan eta eskulturaren eta espazioaren arteko harremana nabarmen-tzen du; materiak, bolumenak, masak eta pisuak sortutako sentazioen bidez.

Paper gainean egindako obren artean, nabarmentzekoak dira haietako lau, euren "oihartzun" izaeragatik, Yve-Alain Bois arte kritikariak esandakoari jarraituz. Eskulturrei erreferentzia egiten dieten marrazkiak dira, hauek instalatu ondoren eta hauen oihartzun modura egindakoak. Azpimarratzekoa da *Federal Plaza I* (1984) lana, eztabaida handia sortu zuen *Tilted Arc* eskulturari erreferentzia egiten diona: 37 metro luze eta 4 metro altu zen altzairuzko xafla bat, 1981 eta 1989 bitartean Manhattango Foley Federal Plazan instalatuta egon zena. Kendu izanak eztabaida publiko handia sortu zuen, eta auzi judizial bat ere bai, eta horren ondorioz eman zen 1990ean artistek euren obrekiko dituzten eskubideen babeserako legea, Visual Artists Rights Act-en jaso. Bereziki interesgarriak dira *Tujunga cut* (1983) eta *Bilbao jungle* (1983) marrazkiak ere, artistak Espainian egindako lehen erakusketarako egindako *Bilbao* (1983) eskulturari erreferentzia egiten diotenak. Bilboko Arte Ederren Museoan izan zen erakusketa hori,

Elkarrekikotasunak. 5 arkitekto / 5 eskultore (1983) izenburu-arekin eta Carmen Giménez eta Juan Muñozek komisariatuta.

Erakusketan dauden oihartzun-marrazkien beste adibide azpimarragarri batzuk dira *C.C. IV*, (1983-4) eta *C.C. VIII* (1983-4), Parisko Tuilerietako lorategietan dagoen *Clara Clara* (1983) eskulturari erreferentzia egiten diotenak.

Paper gaineko obra guzti hauek barrako olio-pintura, pigmentu beltza eta argizariarekin eginda daude, beroarekin urtu eta presio bidez emanda. Richard Serrak asko erabili izan duen teknika bat da, eta pinturaren eta marrazkiaren arteko mugak lausotzen dituen materialtasun bat ematen die obrei.

Erakusketa Madrilgo Guillermo de Osma galerian aurkeztuko da 2021eko otsailetik aurrera, eta argitalpen batekin lagunduko da, Carmen Giménez komisarioaren eta Asier Mendizabal artistaren testuekin.

Richard Serrak (San Francisco, 1939) Literatura ikasi zuen Kaliforniako Unibertsitatean, eta Artea Yale Unibertsitatean. Espainiarekiko bere harremana 1982an hasi zen, mozarabiar arkitektura ezagutzeko bidaiatu baitzuen urte horretan. 1983an Bilbo bisitatu zuen lehen aldiz, Arte Ederren Museoan egin zen Elkarrikotasunak. 5 arkitekto / 5 eskultore erakusketa zela eta. Bidaia hori aprobetxatuz, Arte Ederren Fakultateko ikasleekin izandako topaketa gertatu zen, EAEk (Euskal Artisten Elkartek) antolatuta. 1986an Equal-Parallel: Guernica-Bengasi lana erakutsi zuen MNCARSen, eta zentro horrek berak atzerabegirako bat eskaini zion 1992an. Guggenheim Bilbao Museoak bere Snake obra erakutsi zuen 1997an irekierako erakusketan, 1999an Torqued Ellipse obrak erakutsi zituen, 2005ean The Matter of Time (104 aretorako instalazio iraunkorra), 2008an Plow (hau ere erakusketa iraunkorrean) eta 2011n Constantin Brancusi & Richard Serra. Arte Ederren Museoan egin zen Elkarrikotasunak. 5 arkitekto / 5 eskultore erakusketarako sortutako Bilbao (1983) obra erakunde horri dohaintzan emana izan zen 2018an, eta erakusketa iraunkorraren zati da orain, museoko hallean. 2020an Donostiako Miramar Jauregiko lorategietan instalatu zen Five Plates Counter Clockwise Pentagon (1987) obra. 2008an Espainiako Arteen eta Letren Ordena jaso zuen, eta 2010ean Arteetarako Asturiasko Printzea Saria.





FEDERAL PLAZA 1, 1984
Barrako olio-pintura japoniar paper gainean.
193 x 101,5 cm.





FEDERAL PLAZA 1, 1984. Barrako olio-pintura japoniar paper gainean. 193 x 101,5 cm. (xehetasuna)



NOVA SCOTIA HORIZONTAL CURVE, 1986. Barrako olio-pintura japoniar paper gainea. 98 x 189,5 cm.



Ikuspegi orokorra



THREE UNEQUAL ELEVATIONS, 1975. Altzairu forjatua. 3 elementu, 61 x 31 x 25, 61 x 31 x 27, 61 x 31 x 29 cm. (xehetasuna)

THREE UNEQUAL ELEVATIONS, 1975. Altzairu forjatua. 3 elementu, 61 x 31 x 25, 61 x 31 x 27, 61 x 31 x 29 cm.





THREE UNEQUAL ELEVATIONS, 1975. Altzairu forjatua. 3 elementu, 61 x 31 x 25, 61 x 31 x 27, 61 x 31 x 29 cm. (xehetasuna)



THREE UNEQUAL ELEVATIONS, 1975. Altzairu forjatua. 3 elementu, 61 x 31 x 25, 61 x 31 x 27, 61 x 31 x 29 cm. (xehetasuna)

C.C. IV, 1983-84
Barrako olio-pintura paper gainean.
203 x 157,5 cm.



C.C. IV, 1983-84
Barrako olio-pintura paper gainean.
203 x 157,5 cm.






Ikuspegi orokorra



UNTITLED (SIGHT POINT), 1975
Barrako olio-pintura paper gainean.
255 x 60 cm.



C.C. VIII, 1983-84. Ikatza paper gainean. 96,5 x 127 cm.



TUJUNGA CUT, 1983
Barrako olio-pintura paper gainean.
196,5 x 147 cm.








Titulo gabe, 1985.
Barrako olio-pintura paper gainean.
126 x 203 cm.





BILBAO JUNGLE, 1983
Barrako olio-pintura paper gainean.
150 x 127 cm.



BILBAO JUNGLE, 1983
Barrako olio-pintura paper gainean.
150 x 127 cm.







THREE UNEQUAL ELEVATIONS, 1975. Altzairu forjatua. 3 elementu, 61 x 31 x 25, 61 x 31 x 27, 61 x 31 x 29 cm.

CarrerasMugica

www.carrerasmugica.com

info@carrerasmugica.com

Calle Heros 2 / E-48009 BILBAO
T. +34 944234725